

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Ostirala, 2011ko otsailaren 25a. VIII. urtea. 2.181. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Abaltzisketako zerbitzu etxe berriaren ateak zabaldu dituzte

Goibegi bezala bataiatu duten eraikina inauguratu zuten atzo udal eta Foru Aldundiko ordezkariak Aralarren begiradapean ◦5



Zentroko terrazan egin zuten aurkezpen ekitaldia. HITZA



HITZA

→ **Memoria hilezkorra delako.** 'Errepublika eta Euskal Herriaren Askatasunaren Alde Hildakoei Monumentua' aurkeztuko dute bihar 11:00etan Tolosako hilerrian. Faxistek fusilatutako herritar baten senideak gidatutako ekitaldian alderdi politikoetako eta gizarte eragileetako ordezkariak izango dira, herritarrekin batera. ◦3

Dena prest gaurko Villabonako II. Bakarrizketa Lehiaketarako

22:30ean izango da Gurean; bost bakarrizketa egile ariko dira eta ezustekoak ere izango dira ◦4

Tolosako TAOaren aurkako protesta egiteko taldea sortu dute Facebook-en

Partaideen hitzetan TAOa Tolosan «premiagabea» da eta udalak «sistema honen bidez dirua biltzeko asmoa du hasieratik»; Gipuzkoako beste herri batzuetako egoera aztertu dute ◦2

www.tolosaldea.hitza.info

herrietako informazioa inoiz baino gertuago
ezagutu gure webgune berriak

www.ibarraldea.hitza.info • www.alegialdea.hitza.info • www.anoetaldea.hitza.info •
www.villabona-aiztondo.hitza.info • www.leitzaldeak.hitza.info • www.tolosa.hitza.info

ITXAS BURU
SUGERDUTUGIA

Beragailua jangeran
IREKITA ASTEAZKENETIK
IGANDE EGUARDIRARTE
BARAILUA SALTSAN
ALDEZ AURRETIK ESKATUA

Itxasburu Baserria, 20120 Harroard
Tel.: 943 556 579.

TAOaren aurka protesta egiteko taldea sortu dute Facebook-en

18.095 biztanleko herri batek ordaindu gabeko aparkaleku gehiago behar dituela aldarrikatzen dute

Itzea Urkizu

Tolosako aparkaleku eskasiaren arazotik abiatuz, eta TAO sistemaren kontra protesta egiteko, *No a la OTA de Tolosa* taldea sortu dute Facebook-en.

Ekimen hau martxan jartzeko, 4.345 eta 19.229 arteko biztanleria duten Gipuzkoako herri desberdinetan aparkalekuen arazoari aurre egiteko hartu dituzten erabakiak aztertzen hasi dira. Lehenik eta behin, zirkulazio-zerga aztertzeari ekin diote, eta Zumarragatik hasi eta Lasarterainoko herri guztietan aipatu zerga biltzen dutela egiaztatu dute. Herritarri kontribuzio hau eskatzeak guxtiengo betebeharrak eta kontraprestazioak eskaintzera behar-tzen ditu udalak, besteak beste:

herri-bideetatik ibiltzeko eskubi-dea bermatzeko, bideak egokitzeko eta herriak aparkatzeko leku aproposaz hornitzea. Horrela bezaraz, Tolosarekin batera, Ibarra, Villabona, Ordizia, Zumarraga, Beasain, Andoain, Lasarte eta Hernaniko datuak bildu dituzte TAO sistemaren aurkako aldarrikapenaren oinarria osatzeko.

Tolosa, TAOaren menpe

Aipaturiko hauen artean, Tolosa da biztanleriarik altuena duen bigarren herria, Hernaniren atzetik. Ordainketa bidezko TAO sistema duen herri bakarra da bestalde, Ibarra alde batera utziz; izan ere, Tolosa eta Ibarra arteko gertutasuna dela eta, TAO sistema ezartzeko erabakia hartu zuten bertan, duela urte bete inguru. Hemen, ordea, autoa aparkatzea doakoa da ibarrentzat, eta kanpotik etorritako kotxeen jabeek soilik ordaindu behar izaten dute. Bide beretik, Tolosako biztanle kopuru bertsua duten Hernani, Lasarte edo Andoainen TAO sistemarik ez dute jarri, eta

30 edo 60 minutuko epeak darabil-tzate aparkalekua kudeatzeko.

Lekua izan arren, TAOa jarri

Protesta egiteko sortu den talde honek, bestalde, bigarren argudio bat ere badarabil TAO sistemaren aurka. Bederatzi herri hauen dentsitateari erreparatu gero, Tolosa kilometro karratuko biztanle gutxien bizi den herrietako bat dela ikus daiteke, eta ondorioz, aparkalekuak egokitzeko eremurik zabalena beharko litzukeen herrietako bat ere bai. Hala eta guztiz ere, taldekoek tolosarrek urtean zehar aparkatze-agatik ordaindu beharra salatzen dute, eta ordainduaz ere, aparkatzeko lekua bilatzea zail suertatzen dela nabarmendu nahi dute.

Honegatik guztiagatik, eta «TAOa Tolosan premiagabea delako», sistema honen aurka protesta egiteko deia luzatu nahi diete herritarrei, «argi geratu baita udalak sistema honen bidez dirua biltzeko asmoa izan duela hasieratik».



Atzokoa aurkezpena. I. URKIZU

Aurkeztu dute bosgarren Gipuzkoa Encounter jaialdia

Berdintasuna izan da irizpide nagusia, jada bete den izen-emate zerrenda kudeatzeko garaian

Itzea Urkizu

Aurkeztu dute jada bosgarren aldiz Tolosan ospatuko den Gipuzkoa Encounter, ordenagailu eta teknologia berrien topaketa.

Datorren martxoaren 18, 19 eta 20an Usabal kiroldagiko ateak zabalduko dizkiete parte-hartzaile guztiei, eta mota guztietako jokak, deskargak nahiz lehiaketak izango dira.

Jaialdia herrira gerturatuz

Antolatzaileen aurtengo erronka nagusia «tolosarrak ekimen honetara erakartzea» izan da. Lan horretan, GKO Galerikoaren laguntza izango dute, New Yorkeko Aram Bartholl artistaren proiektu berri bat oinarri hartuta. Bestalde, Tolosaldeko Lanbide Heziketa Institutuko ikasleek Gipuzkoa Encounterren parte hartuko dute antolakuntza lanetan, ikasturteko eduki teorikoa praktikan jarri. Ikastaro desberdinak ere izango dira, eta kultur etxean pantaila erraldoia jarriko dute asteburu osorako.

→ Laburrak

Aiz Orratzen haur jaialdiko sarrerak lehiatzen bertan

INAUTERIAK ▶ Bihar arratsaldean Leidor aretoan izango den Aiz Orratz elkartearen Inauterietako haur jaialdirako sarrerak, bihar 11:00etatik aurrera eskuragarri izango dira Leidorreko lehiatzen.

Haurreskola berriaren irekiera ekitaldia gaur

HEZKUNTZA ▶ Plaza Berriko Abastos eraikin eraberrituko haurreskolan lanean ari dira jada, eta gainerako herritarrek eraikina eta bertan egindako birmoldaketa ezagutu dezaten, ate irekien festa izango da gaur arratsaldean. 18:00etan hasiko da ekitaldia, Salto pailazoan emanaldiarekin. Gero, Maite Larrañaga Haurreskola patzuegoko kudeatzailearen hitz batzuen ondoren, haurreskolako instalazioak ezagutu ahal izango dituzte bertaratuak.

Kilometro 0 ekimena biharko azokan

GASTRONOMIA ▶ Tolosako Azokak + Kilometro 0 ekimena berriro abiatuko da larunbat honetan, azokako garaian garaiko produktuak sustatze aldera. Bihar goizean, horrela, Solana 4 tabernako Sonia Tapia eta Leire Jurio arituko dira sukaldari lanetan. Zerkausiko postuetan osagaiak erosiko dituzte. Ondoren, Zerkausi kalean herritarren aurrean arituko dira osagaiak sukaldatzen, 11:30ak aldera herritarrei janaria banatzeko. Biharko kasuan, baserriko oilanden arrautzak barazkiekin prestatuko dituzte.

Tolosako Babarrunaren Kofradiaren ospakizuna

GASTRONOMIA ▶ Igandean Tolosako Babarrunaren Kofradiak bere XXII. kapituluaren ospakizuna egingo du. Eguerdian, udaletxeko Batzar Aretoran izango da ospakizuna, eta Ohorezko kofradearen izendapena jasoko dute Ainhoa Aierbe aktoreak, Juan Mari Aramendi sukaldariak, Asador Casa Matias jatetxe madrildarrak, Tolosako Erakume Arraunlariak eta Javier Zurutuza tolosarrak.

Saharar Errepublikaren 35. urteurrena

POLITIKA ▶ Igandean Saharar Errepublika aldarrikatu zuteneko 35. urteurrena beteko da, eta elkartasuna adierazteko, udal-etxeko balkoian Saharako bandera jarriko dute.

Irudia Topic



TOPIC BILBOKO LA ALHONDIGAN

Joan den asteartean Bilboko La Alhondigan izan ziren Topic-eko eta CITEko ordezkariak, eta Jokin Bildarratz alkatea. Bertan, Shanghaiko Expo Unibertsalean Bilbo ordezkariak duen argi-eskultu-

ra ikusgai izan zen, eta Topic-en eskutik, Shanghaiko Expoan Euskadiren astean izan ziren txotxongiloek bisitatu zuten Bilbo, ezkontza txinatar bat irudikatuz. HITZA

TOLOSAKO INMAKULADA IKASTETXEA
Kondeko aldapa 5B, 20400 Tolosa
www.inmakuladatolosa.com
943-67 36 29

DOAKO IKASTAROAK ARRATSALDEZ

- Ergonomia eta posturen higiena (Apirila - maiatza)
- Psikogeriatria (apirila-maiatza)
- Menpekotasuna duten gaixoen higiena eta garbiketa
- Optika II (apirila)
- Homeopatia (martxoa-apirila)
- Psikomotritatea (apirila-maiatza)
- Adimen emozionala: emozioen kudeaketarako bide
- Estresaren kontrola eta kudeaketa
- Psikologia baikorra
- Komunizatoriko trebeziak

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Tolosako hilerrian aurkitzen den monumentuaren bi xafletan, tiroen zuloak irudikatu dituzte. HITZA

↓ Iritziak

**Mari Mujika**

LAB sindikatua

«Argi dago berandu egindako gauza bat dela, instituzioak beti bezala aparte ibili baitira. Faxistek hildako gudariak ezkutatzeko interes bat beti egon da. Adibide garbiena hilerrian dago, frankistek oroigarria baitute bertan. Horrez gain, azpimarragarria da nondik etorri den ekimen hau, herritarrek sortua eta bultzatua izan baita».

**Antton Izagirre**

Ezker abertzalea

«Ekitaldi hau herritarra den neurrian parte hartuko dugu. Batik bat, gerra garaian faxisten eskuetan heriotza aurkitu zutenen aitortza eta omenaldi gisa. Gogoratu nahi dugu, garai hartako ANVk defendatu zuen ildo-tik, ezker abertzaleak Euskal Herriaren askatasuna eta independentziaren alde borrokan dirauela. Eta egun, biak ilegaltzaturik aurkitzen direla. Argi gertatzen da, faxistek hasi zuten bigearri beste batzuk eutsi egin diela eta, Frankoren ondorengoek ez dutela trantsiziorik egin. Euskal Herrian, independentzia eta askatasunaren aldeko egarriak hor jarraitzen du».

**Oscar Renedo**

PSE-EE

«Gerra zibilaren izugarrikeriak pairatu zituztenen zati garrantzitsua izanik, PSE-erentzat bizgailua da 75 urteren ondoren, Tolosako gune esanguratsu bategan monumentu hori egotea; frankismoaren zentzugabeberia jasan zuten biktimei eskainia. Biktime hauen duintasunaren eta moralaren konponketa, eskubide ukaezinak dira, eta gizarteak errebendikatu egin behar ditu, sufrimendu horren aitortza bezala».

**Egoitz Iturbe**

ELA sindikatua

«Garai haietan gure sindikatuan lanean ari zirenek erreprezio bortitzena jasan zuten, langile eta euskaldunen eskubideak defendatzeagatik. Ondoren, 40 urtetan zehar, gure sindikatua legez kanpo egon zen. Guretzat haien eredu eta oroimena berreskuratzea gizalegekoa da, ezinbestekoa. Horregatik, biharko ekitaldian parte hartuko dugu».

**Begoña Tolosa**

EAJ

«Bi hitzetan, eskertu nahi diegu Gerra Zibilean herri honen askatasunaren alde borroka egin zuten guztiak. Ez zaituztegu ahazten. *Izan ginelako gara, garelako izango dira*».

**Onintza Lasa**

EA

«Demokrazian benetan sinesen dugun pertsona zintzook, obligazio edo bete behar bat geneukan pertsona horiekiko. Guk ez baldin baditugu ahazten, ez dira ahaztuak izango. Orduan, gure bizilagun haien memoria, duintasuna, zintzotasuna eta entrega nolabait ere gogorarazi behar genuen. Nahiz eta jakin badakigun, gisa hauetako eskaintzak ehuneko ehuneko inoiz ezingo ditugula ordaindu. Gure ekarpen xumea izan da, baina zintzoa eta benetan errespetuzkoa, begirune osoz egindakoa. Demokrazia eta giza eskubideen aldeak ezin dira inoiz zapuztu eta, oroimen hau ikasgai handia da. berriz ere errepika ez dadin».

Herriak ahaztu ez dituelako

Tolosako hilerrian ezkutuan egon den historiaren inguruko monumentua aurkeztuko dute bihar, 11:00etan

Ekitaldian alderdi politiko eta gizarte eragileen ordezkariak ere egongo dira

Asier Imaz Tolosa

Tolosako herriak bere seme kuttuntzat duen panteoiaren ondoan, *Errepublika eta Euskal Herriaren Askatasunaren Alde Hildakoei Monumentua* jarri dute.

Tolosako Udalaren laguntzarekin, herritarrak izan dira faxismoak sortutako biktimek gogora ekarri dituztenak. Ondoren, alderdi eta eragile desberdinen atxikimendua jaso dute. Besteak beste, EAJ, PSE-EE, Ezker Batua-Aralar, EA, ezker abertzalea, LAB, ELA, EHNE eta CCOO-ena.

Guztiak, bihar 11:00etan elkartuko dira Tolosako hilerrian, monumentuaren aurkezpenean.

Bihar 11:00etan, hilerrian

Ekitaldia faxistek fusilatu zuten herritar baten senideak gidatuko du. Lehenik, txalaparta soinuak entzungo dira. Ondoren, Karlos

Linazasoro idazleak olerki bat irakurriko du. Juantxo Agirre Mauleon tolosarrak emango dio jarraipena ekitaldiari, testu bat irakurritik. Bertsolarien ostean, Mikel Errazkinek eta Olatz Hernandezek omenaldiko protagonisten izenak irakurriko dituzte.

Zerrenda horretan, «tolosarrak; Tolosan eraildakoak, nahiz eta kanpokoak izan; kanposantuan hil zituztenak; bonbardaketan hildako zibilak eta kontzentrazio edo sarraski esparruetan hildako tolosarren izenak egongo dira».

Eskulturaren esanahia

Juantxo Agirre Mauleon Aranzadi zientzia elkarterko Idazkari Nagusia da, baina larunbateko ekitaldia herritar bezala ari da prestatzen. Bere esanetan, «beste herrietan antzeko omenaldiak burutu diren arren, estatu mailan horrelakorik ez da inoiz egin. Hau da, 15.000 biztanleko herri batean

4.500 gizon emakume aztertu dira. Horiek erreprezioarekin eta giza eskubideen urraketekin izan duten harremana ikertu da. Ondorioz, 4.500 kasu inguru daude dokumentatuta, izen abizenekin. Herri baten inguruan, horrelako ikerketa sakonik ez da egin».



Beste herrietan antzeko omenaldiak egin dira, baina estatu mailan honelakorik ez da egin»

JUANTXO AGIRRE MAULEON
Antolatzaile taldeko kidea

Ezkutuan eta bazterrean lurperatutako historia, orain, Tolosako hilerriaren erdian kokatu dute. Eskultura herritarren artean diseinatu dute eta hiru burdinezko xaflez osatua dago. Horietaiko bi zulatuturik daude, tirokatuak izango balira bezala. Ikustean, hormaren aurkako fusilaketa hotz haiek etortzen dira burura. Hirugarren xaflan, Errepublika eta Euskal Herriaren Askatasunaren Alde Hildako gudari eta herritarren izena abizenak aurkitzen dira. Azkenik, aurrean, harri bat aurkitzen da, «bizitza eta askatasunaren balioa eta baloreen hilezkortasuna aldarrikatu».

↓ **Kirol jarduera**

TOLOSA

BIHAR

Saskibaloia.

- **09:00.** Infantil mutilak, TAKE Bedaio-La Salle eta TAKE Aldaba-Larramendi, Usabalen.
- **10:30.** Kadete mutilak, Triki Take-Lizeotarrak, Usabalen.
- **12:00.** Kadete mutilak, TAKE Tovar-ISB eta Bide Bide-Aloña Mendi, Usabalen.
- **16:00.** Junior mutilak, Take-ATCO SN SA, Usabalen.

Eskubaloia.

- **12:00.** Infantil mutilak, Tolosa-Talaia, Usabalen.

Areto futbol.

- **18:00.** Laskorain - Donosti Zuzen, Usabalen.
- **18:00.** Laskorain C - Tecnun, Usabalen.

Futbola.

- **09:30.** Infantilak Txiki, Tolosa C.F.-Antiguoko, Usabalen.
- **11:00.** Infantilak, Tolosa C.F.-Zarautz, Usabalen.
- **12:30.** Infantil neskek, Tolosa C.F.-Zestoa, Usabalen.
- **15:30.** Kadete neskek, Tolosa C.F.-Amaikak Bat, Usabalen.
- **17:30.** Jubenilak 1, Tolosa C.F.-Beti Ona, Usabalen.

ETZI

Eskubaloia.

- **12:00.** Kadeteak, Tolosa-Egia, Usabalen.

Areto Futbola.

- **12:00.** Neskak, Laskorain -Aker Beltz, Usabalen.

Eskualdeko pilotariak Euskal Herriko Txapelketako bost finaletan

Erredakzioa

Asteburu honetan Euskal Herriko Txapelketako bost finaletan ariko dira eskualdeko pilotariak. Gaur, 19:00etan Binakako Nagusien Ohorezko mailan Aurrera-Saiazeko Urbietara eta Telletxea, Hernaniko elkartearen aurka ariko dira. Bihar, Iurretako pilotalekuan 17:00etan eskualdekoek bi partida jokatuko dituzte. Batetik, Andoaingo Gazteleku elkarteko Tolosa anoetarrak eskuz banaka jokatuko du Zugarralde elkarteko Agirrerren aurka. Bestetik, binakako kadete mailakoa izango da, eta Aurrera Saiazeko Mugika eta Iruretagoiena ariko dira, Segurako elkartearen aurka. Bihar, Gasteizko Txukun Lakuan, 16:30ean jubenil mailan Zazpi Iturriko Jakak Erreka elkartearen aurka jokatu du. Eta leku berean, Ohorezko Nagusietan Aniztasunako Bellosok Berako elkartearen aurka jokatu du.

Iritsi da II. Euskarazko Bakarrizketa Lehiaketako finala



Mailu Arrutik eta Nahia Hualdek, bigarren kanporaketatik finalera sailkatzea lortu zuten. HITZA

Gaur 22:30ean bost bakarrizketa egile ariko dira; sorpresaz betetako finala prestatu dute

Antolatzaileek aurreko bi saioen balorazioa «positiboa» egiten dute eta iaizkotik «maila igo» dela ikusi dute.

Aurtengo finala ere berezia izango da. Musika zuzenean eskainiko dute eta espero gabeko

bakarrizketa egileak ere izango dira. Gainera, publikoak bere gustukoena izan dena aukeratu beharko du. Lehen sarituak 800 euro jasoko ditu, bigarrenak 450 euro eta publikoaren saria 250 eurokoak izango da.

Eneritz Maiz Amasa-Villabona

Bi kanporaketa egin ostean, egun handia iritsi da Amasa-Villabonara. Gaur 22:30ean emango zaio hasiera II. Euskarazko Bakarrizketa Lehiaketari.

Ione Gorostarzu berastegierra, Erika Olaizola, Eneritz Artetxe, Nahia Hualde eta Mailu Arruti bakarrizketa egileen artean jokatuko da finala.

↓ **II. Euskarazko Bakarrizketa Lehiaketa**

FINALA, GAUR

■ **Gurea Zine Aretoan.**

22:30ean hasiko da saioa. Sarrerak, 5 eurotan leihatilan erosi daitezke.

■ **Bakarrizketa egileak.**

Erika Olaizola, Eneritz Artetxe, Ione Gorostarzu (berastegia-

rra), Nahia Hualde eta Mailu Arruti izango dira.

■ **Sorpresak.** Antolatzaileek ezusteko ugari tartekatuko dituzte. Musika zuzenean izango da. Finaleko sailkatuek gain, bakarrizketa egileak tartekatuko dituzte eta publikoaren saritua aukeratzea ere bitxia izango da.

→ **Laburrak**

Lau urteetako balantzea eta hauteskunde zerrenda

ALBIZTUR » Herri batzarra egingo dute gaur Albizturren, 21:00etan udaletxean. Bertan azken lau urte hauen balantzea egingo dute udaleko kideek. Bestalde, hurrengo udal hauteskundeetara aurkezteko asmoa duten herritarrek izena emateko aukera izango dute. Aurrerago beste bilera bat egingo dute zerrenda osatzeko.

Behar Zana Kirol Elkarteko ohiko bilkura, etzi

VILLABONA » Igandean Gurea zine aretoan Ohiko Bilkura ospatuko du Behar Zana Kirol Elkartek. Lehenengo deialdia 09:00etan eta bigarrena 09:30ean izango da. Hamar puntu jorratuko dituzte eta gaien garrantzia dela eta bazkideak bertan izatea komeni da.

'Amor y Otras Drogas' eta haur antzerkia Gurean

VILLABONA » Larunbatean 19:30ean eta 22:15ean, igandean 19:30ean eta astelehenean, 21:30ean *Amor y Otras Drogas* filma eskainiko dute. Larunbatean, 16:30ean Haur Antzerkia egongo da.

Loatzo Musika eskolako emanaldia Gurea Antzokian

Martxoaren 1ean 19:00etan eskainiko dute Kataluniako Arenys de Mar herrian egingo duten emanaldia

E. Maiz Villabona

Loatzo Musika Eskolako ikasle eta irakasleak, martxoaren 17tik 20ra, Kataluniako Arenys de Mar herrira irteera egingo dute. Hori dela eta, asteartean, 19:00etan Villabonako Gurea Antzokian emanaldi bera eskainiko dute.

Euskal Herriko mugetatik haratago joan nahi izan dute musika eskolako irakasleek irteera hau antolatuz eta horregatik jarri ziren harremanetan Kataluniako Arenys de Mar herriko Musika Eskolarekin elkartrukea egiteko. Lau eguneko irteerara, Loatzo Musika Eskolatik talde handia joango da. Guztira, 72 ikasle (banda, orkestra, txistulari, trikitixa talde eta eskusoinu taldea), 9 irakasleren gidaritzapean izango dira.

Gurasoek Kataluniara ezingo dutenez joan, Villabonan ikusteko aukera izango dute, Arenys de Mar-en egingo duten emanaldi berdina eskainiko baitute bertan. Ikasleak, 12 eta 22 urte bitartekoak dira. Eta hain zuzen ere, Alegria, Altzo, Aduna, Anoeta, Ibarra, Irura, Villabona eta Zizurkil herrietakoak.

Loatzo Musika Eskolako irakasleek «Villabonako emanaldira gonbidatzen zaituztegu» diote. Eta gurasoek gain edonorentzat

ateak doan zabalik egongo dira Gurea Zineman.

Musika eskolen elkartrukea

Lehen hartuemana martxoan egingo dute eta Kataluniarrak datorren ikasturtean etorriko direla gurera adostu zuten. Ostegunean, hilaren 17an, 15:00etan aterako dira Anoeta eta Villabonatik autobus banatan. Igandean berri, 20:30ean iritsiko dira irteera puntu berdinetara.

Arenys de Mar herrian, ostira-



laz, Etxarri-Aranatzera egin zuten irteera bat. HITZA

↓ **Musika emanaldia**

MARTXOAK 1, ASTEARTEA

■ **19:00.** Loatzo Musika eskolako 72 haurrek musika emanaldia eskainiko dute Gurea Zineman.

Ilean, lau taldetan banatuta institutu ezberdinetara joango dira emanaldiak ematera. Larunbatean berriz, larunbateroko azokan kalejiran ibiliko dira Loatzo Musika Eskolakoak eta bertako buruhandiak lagun izango dituzte. Eta arratsaldean pasatzera Bartzelonara joango dira. Guztia «ongi lotu» nahi izan dutela adierazi du Aitor Lasa irakasleak.

Azken egunean, bi musika eskolek batera kontzertua eskainiko dute eta elkarrekin abesti batzuk ere joko dituzte. Jarraian, etxerako buelta egin beharko dute. «Esker ona» adierazteko asmoz, abesti bat katalanez abestuko dute.

Irakasleen ustez: «ikasleek bertan lantzen dutena kanpora ateratzea interesgarri ikusten genuelako sortu zen ideia hau, eta beraiek gogo eta ilusio handiz daudela esan behar da». Eta ikasleak ez ezik, «irakasleek ere halaxe gaude» diote.

Goibegi izena jarri dioten zerbitzu etxea inauguratu dute

Udaleko eta Foru Aldundiko ordezkariak moztu zuten zinta; milioi bat euroko aurrekontua izan du

Imanol Garcia Abaltzisketa

Abaltzisketako zerbitzu etxe berria inauguratu zuten atzo udaleko eta Foru Aldundiko ordezkariak. Goibegi izena jarri dioten eraikina herritarrei zabaldu zieten ohiko zinta mozketaekin Jesus Mari Gorostidi alkateak, Markel Olano ahaldun nagusiak, Rafa Uribarren Landa Garapenerako diputatuak eta Florentino Ugalde Landagipuzkoa32 egitasmoaren kudeatzaileak. Eusko Jaurlaritzako ordezkariarik ez da izan inaugurazioan.

Eraikina herriko frontoari itsatsita dago, errepidearen ondoan Txindokira begira. Bi solairu ditu, behekoa herritarren erabilerarako eta goikoa enpresentzako. Eraikinen teilatua terraza bezala egokitu dute eta elizaren ondoko parkera lotuta gelditu da. Hain justu, bai terrazatik bai eraikinarren barruko bi solairuetatik Aralarreko parajeen ikuspegi ederraz

gozatu daiteke. Guztira milioi batetako aurrekontua izan du eraikina. Horietatik 600.000 euro jarri ditu Foru Aldundiak Landagipuzkoa32 egitasmoaren bitartez, beste 300.000 euro Eusko Jaurlaritzak jarri ditu Erein egitasmoaren bitartez eta udalak 100.000 euro ipini ditu.


Herri txikien beharrak

Jesus Gorostidi alkateak eraikinarren garrantzia azpimarratu zuen ekitaldian: «Zerbitzurik gabe zaila da bizitzea herri txikietan. Eskola, garraioa, medikua eta beste hainbat zerbitzuren behar izaten dugu. Udalak antolatzen dituen ekintzetarako lokal faltan izaten gara eta gaur inauguratuko dugun eraikina behar horiek betetzen lagunduko du».

Alkateak dei egin zien Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari diru laguntzak ematen jarraitzeko eta Markel Olanok bilera batean esandakoari heldu zion: «Gipuzkoan herri txikien eta handien artean oreka bat sortu behar da. Eta horrelako proiektuek herri txikiei oreka hori izaten laguntzen die». Gorostidik arkitektoek egindako lana nabarmendu zuen «eraikina Abaltzisketan integrazteagatik eta inguruko parajeaz



Abaltzisketatik Amezketara doan errepidearen ondoan kokatzen da eraikin berria. I. GARCIA



Beheko solairutik Txindokiren ikuspegia dago (ezkerrean). Goiko solairuan enpresak kokatuko dira. I. GARCIA

gozatzeko ematen duen aukeragatik».

Bere aldetik, Markel Olanok adierazi zuenez, «garbi genuen legealdi honetan lurralde ikuspegi-oreka mantentzeko ezinbestekoa zela herri txikiei babesa es-

kaintzea, hain justu, anbizioz ikusten genituelako». Herri txikiak hazten ari direla eta bertan herri-bizitza mantentzeko dinamika horrek «eskakizunak» ekarritzen dituela gaineratu zuen. Bidebategi, Olanok gogora ekarri zuen

herri txikiek horrelako proiektuak bideratzeko dituzten gabezi ekonomikoetara aurre egiteko jarri zutela martxan Landagipuzkoa32 egitasmoa. Proiektu horiek herriek eskatutakoak izan direla nabarmendu zuen.



saridunak

1 Otordua

◦ Zigor Leunda (Villabona)



Tolosa • Tel.: 943-67 26 13

Tolosako **Eguzkitza** sagardotegian 2 pertsonentzako otordua

2 2 disko

The 44 Dealers

taldearen Welcome to the big fat and greasy blues soul diskoaren bi ale



◦ Ugaitz Iraola (Irura)

◦ Alberto Sukia (Ibarra)

3 Sarrera pare

◦ Itziar Lahidalga (Villabona)

LAGUN ARO GBC
Assignia Manresa
saskibaloi partida




Otsailak 27 • Igandea 17:00etan Donostiako Ilunben

4 Sarrera pare

◦ Mikel Txapartegi (Tolosa)

Bebek eskainiko duen kontzerturako sarrera pare bat



Martxoak 11 • Ostirala 20:30ean Tolosako Leidorren

Sariak eskuratzeko HITZA jarriko da zuekin harremanetan

harpidedunen **TXOKOA hitza** info

Arrospide eta Zabaleta Binakako Txapelketako finalean lehiatuko dira

Finala igande honetan izango da; leaburuarra Urrezko mailan eta leitzarra Gaztetxoan mailan ariko dira

M. Ugartemendia

Igandean jokatuko dira Eusko Label Binakako Aizkora Txapelketako finalak, eta bertan izango dira Anjel Arrospide leaburuarra Urrezko mailan eta Mikel Zabaleta leitzarra Gaztetxo mailan.

Jardunaldia igande honetan izango da, 12:00etatik aurrera Azpeitiako Izarraitz pilotalekuan. Bertan hiru final jokatuko dira, Urrezko mailakoa, Zilarrezko mailakoa eta Gaztetxo mailakoa.

Esan bezala, Urrezko mailan Anjel Arrospide leaburuarra izango da Mugerza II. arekin batera. Txapelketa honetako maila gorenean lehenengo aldiz ez da aizkolari nafarrik izango. Arrospide eta Mugerza II.ak Gipuzkoako eta Bizakiko txapelkunak diren Azurmendi eta Atutxa II.a izango dituzte aurkari.

Finalean egongo diren lau aizkolarietatik, Arrospide da txapelketa honetako final gehienetan egongo den aizkolaria. Guztira sei finaletan parte hartu du, honakoa kontutan hartuta. Final hauetako batean txapela ere eskuratu ahal izan zuen. Zehazki 2001-02 denboraldian izan zen, Arria V.a bikote zuelarik. Bere bikote den Ugaitz Mugerzak estreinaldia izango du maila honetan, baina bi



Anjel Arrospide. 10 / ARGAZKI PRESS

Orduan ez zuten txapela lortzerik izan, galdu egin baitzuten Larretxea eta Atutxa II.aren aurka. Ea elkarren aurka ariko diren honetan nork eramaten duena txapela etxera. Bestetik, Aitzol Atutxa da lauen artean txapel gehien eskuratu dituen aizkolaria. 2007-08 eta 2008-09 denboraldietan jokatu zituen txapelketa honetako finalak, eta bietan txapela eskuratu zuen. Aurkari gogorrak, beraz, leaburuarrak eta bere bikoteak garaitu beharko dituztenak, txapela eskuratu nahi badute.

Gaztetxoak ere bikain

Aurten lehen aldiz Eusko Label Binakako Aizkora Txapelketan Gaztetxo mailako kategoriako txapela ere jokoan dago. Eta final horretan izango da Mikel Zabaleta leitzarra.

Finalean bi leitzar elkarren aurka aritzekoak ziren, baina zorritzarrez Eneko Saralegik ezin izango du finalean egon, lehenengo astean apendizitiseko ebakuntza egin baitzioten. Bere orde ez Eloi Kortxero arabarra ariko da finalean.

Mikel Zabaleta leitzarrak Eneko Otaño gipuzkoarra izango du bikote, eta Eloi Kortxeroren eta Iker Vicenteren aurka ariko dira.

Leitzarrak eta bere bikoteak finalean aurkari izango duen bikotearen aurka galdu zuten, txapelketa guztian galdu duten jardunaldi bakarra. Beraz, orain horren ordaina ematen saiatuko dira. Pena izango da bi gazte leitzarrak finalean elkarren aurka ezin ikusi ahal izatea.

'Berastegiaren sustraiak' landatuko dituzte

Ospatuko den ekitaldietako bat, azken urtean jaiotako haur bakoitzeko zuhaitz bat landatzea izango da

M. Ugartemendia Berastegi

Azken urteetako ohiturari jarraituz Zuhaitz eguna ospatuko dute igande honetan Berastegin. Muñagorri herri eskolako haurrek ere parte hartuko dute festa honetan.

Gainera, aurten berrikuntza bat izango dute, ekitaldi berri bat ospatuko baitute. 2010ean jaiotako haur bakoitzaren izenean

zuhaitz bat landatuko dute. Ekitaldi hauek beti bezala, otsaileko azken igandean egingo dituzte. Horretarako festan parte hartu nahi dutenek Berastegiko plaza joan beharko dute 09:30etarako. Ekitaldi hauek ospatzeko bi eremu «zoragarrri» aukeratu ditu udalak, bata Beibatari eta bestea Berastegiaren sustraiak bezala izendatu berri duten eremua, Salontzoren magalean dagoena.

Zuhaitzak landatu ondoren, Gorosmendiko txabolon hamaitzekako «ederra» egiteko aukera ere izango dute. Udalak herritar guztiak (haur, gazte, heldu eta abar) gonbidatu nahi ditu zuhaitzaren festara, eta bereziki jaioberrien gurasoak.

Mendizabal brontzea lortzen saiatuko da

Larunbat honetan Gomazko Paletako finala jokatuko da; 3. eta 4. postuak ere bertan erabakiko dira

M. U.

Frontoi Motzeko Emakumeen Gomazko Paletako Kutxa Sariko finala eta 3. eta 4. postuak jokatuko dira larunbat honetan Tolosako Beotibar pilotalekuan, 11:30ean. Bertan izango da Maider Mendizabal anoetarra Aurore Coset bikotearekin 3. postua lortzeko lehian.

Mendizabal eta Caset, Muneta eta Gracieten aurka ariko dira lehen partidari 3. eta 4. postuak zehazteko. Partida hau txapelketa lehen jardunaldiaren errebantxa izan daiteke, neurketa hau bera jokatu baitzen orduan. Partida hartan Caset eta Mendizabal izan ziren garaile. Ordutik guzuzak asko aldatu dira, eta kantxan segurtasun handiagoarekin jokatzen ari dira denak. Beraz, fabrikatzaile gabeiko neurketa eta lehia handikoa izatea espero da. Ondoren, Espinarrek eta Ruiz de Larramendik, Etchelecuren eta Montesen aurka jokatu dute finala. Denek gogor borrokatuko dute posturik onenak lortzeko lehian.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

HILETAREN BALIOA Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakoitzak bere neurrako hileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazozina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko ditugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

Gipuzkoa Zero Zaborren 'flash mob'a grabatzeko entsegua egingo dute

Hitzordua bihar da 12:00etan Ibarako plazan; bideoa Zubietan grabatuko dute martxoaren 20an

Rebeka Calvo Ibarra

Bihar 12:00etan Ibarako plazan Gipuzkoako Zero Zabor taldeak martxoaren 20an Zubietan grabatuko duen *flash mob*ean parte hartu nahi dutenentzat entsegua izango da. Ordubeteko saioa izango da eta koreografo bat ere gertu-

ratuko da herrira egin beharreko koreografia «erraza» erakusteko. Taldearen asmoa Zubietako erremonteko frontoia 2.000 lagunekin betetzea da, guztiek dantza bera egitea eta hori guztia goitik grabatzea, ondoren bideoa Internet bidez zabaltzeko.

Gipuzkoa Zero Zaborren ekimen honen helburua erraustegiaren luzamendua eskatzea da, «denbora besterik ez», azken finean. Era berean «Zubietako jendeari Gipuzkoa osotik elkartasuna adierazi» nahi diete eta baita «atez ateko hondakin bilketari omenalditxo» ere.

Elkarretaratzeak izango dira gaur, hileko azken ostirala dela eta

Hil hau ere igaro da eta azken ostiralarekin batera ohiko deia egingo du Amnistiaren Aldeko Mugimenduk

Erredakzioa

Gaur iluntzean ohiko elkarretaratzeak izango dira Tolosaldeko eta Leitzaaldeko herrietan Amnistiaren Aldeko Mugimenduren deialdiari jarraituz. Elkarretaratzeetan, hilerio bezala, euskal preso eta iheslari politikoekin etxeratzea eskatuko dute. Izan ere, AAMk argitu duenez, 714 herrita-

rrek osatzen dute Euskal Preso Politikoen Kolektiboa. Hauetarik zortzi espetxealdi arindua betetzen ari dira etxean gaixotasun larrien ondorioz. Era berean, zazpi

preso daude Euskal Herrian, bat Portugalen eta beste bat Irlandan. Beste guztiak Espainiako eta Frantziako espetxeetan sakabatuak daudela gaineratu du.

↓ Azken ostiralak

GAUR

- Aduna. 20:00etan.
- Alegia. 19:30etan.
- Amezketa. 19:30etan.
- Anoeta. 19:30etan.
- Asteasu. 20:00etan.
- Ibarra. 19:30etan.
- Ikaztegietak. 20:30etan.

- Lizartza. 20:00etan.
- Orendain. 20:00etan.
- Tolosa. 19:30etan.
- Villabona. 20:00etan.
- Zizurkil. 20:00etan.
- Leaburu-Txarama. 20:15ean Leaburun.
- Leitza. 20:00etan Lopeneko biribilgunean.

Itolosaldeko hitza . iragarkilaburrak.com

Atalaren erantsailak 15:00an aitzakia orainekoak soilik argitaratuko dira.
IRAGARKIAK IRATZINDU: www.itolosaldeko-hitza.iragarkilaburrak.com / 943-65-56-95 telefono zerbakia

Atalaren erantsailak 15:00an aitzakia orainekoak soilik argitaratuko dira.
IRAGARKIAK IRATZINDU: www.itolosaldeko-hitza.iragarkilaburrak.com / 943-65-56-95 telefono zerbakia

Lanarengozioak

LANERKARIAK

IRAKASKUNTZA

Villabona. Ingelesko klasek ematen dira G- puzkoan mailan. Taldeko edo bakarka. Maita

erbedinak, irakaski tituladuna. Telefonoa 664-76 02 68 eta posta elektronikoa continental56@hotmail.com

ERRENTAN ENAN

Alegia. Alegia, le-apakindreg bat alokatzen da. Interesatuak deitu 665-7082 08 telefono zerbakira.

Leku hau zure iragarkiarean zain dago

ARAMBURU Euzko administrazioa Hiruzetaren kudeaketa

943-65 17 13 / 664-37 25 60

www.aramburunet.net

SALGAI

- Etxebizitza. Amara kalean, igogailuarekin, Leitza, Nafarroa.
- Lokala. Founon kalean, Tolosa.
- Garaje itxiak eta irekiak. Tolosa, Ibarra eta Iruan.

ALOKATZENDO

- Etxeak. San Frantzisko kalean, Paper kalean, Herros kalean eta Agintari kalean, Tolosa.
- Garajeak. Lantamendi, Tolosa.
- Txokoa. Tximinia, komuna, ohe bikoitza, ordezko ohea eta terraza, Barribarren.
- Lokala lurre azuztan, Tolosa.

www.inmosalbide.com

SALBIDE
Hiruzetaren zerbitzuak

Aia. Erakuntza berria 3 logela, 2 banagueta eta 127 m²ko terraza. 46.588.000 pezeta

Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onen. 28.500.000 pezeta

Getaria. Herrieta kalean. 3 logela eta 2 banagueta etxebizitza. Iratxelekuarekin. Egoera onen. 41.000.000 pezeta

Zarauz. Langoa plaza (Salbide). 2 logela eta banagueta bat. Guztiz berria. 45.000.000 pezeta

Zarauz. Vista Alegren. 3 logela, banagueta eta asos. Terraza handia hegoaldean. Bista ederrak. 50.000.000 pezeta

Zarauz. Erdialdean. 2 logelako atxiko erabat berria. Igogailua eta gasa. 51.500.000 pezeta

Zarauz. 4 pisu igogailuk gabeko 2 logela berria behar dago. 35.000.000 pezeta

Zestoa. Erdialdean. Ebe bilatzen batuan. 3 logelako etxebizitza. 31.000.000 pezeta

Bekala kalea, 6 • 20800 Zarautz
Telef. 943-01 07 00 • Fax: 665-71 85 94

ETXEBILA
Hiruzetaren zerbitzuak

943-44 81 66

ERDIALDEA Urbita. Logela, sukaldia, egongela, banagueta. Bertako. 43.500.000 pta

AMARA Altua. Bista irekia. 3 logela, sukaldia, egongela, banagueta. Terraza. 48.700.000 pta

AMARA 3 logela, sukaldia, egongela, banagueta. Altua. Bertako. 44.500.000 pta

AMARA 3 logela, sukaldia, egongela, banagueta. Terraza. 46.200.000 pta

AMARA Pasaia. Logela, sukaldia, egongela, banagueta. Terraza. 44.700.000 pta

GRIO Apartamentu oso gutxi. Logela, egongela, sukaldia, banagueta. Iratxeleku. 70.500.000 pta

AITE Duplex oso gutxi. 2 logela, 2 egongela, sukaldia, banagueta. Iratxeleku. 70.500.000 pta

INTZARRODUNO 2 logela, sukaldia, banagueta. Bista irekia. Bertako. 37.500.000 pta

ESIA Herrieta asua. Igogailua 2 logela, sukaldia, banagueta. Bertako. 47.500.000 pta

ANTIGUO Berta. Bert. 30m² Altua. Terraza. Garaje. Iratxeleku. Puzta.

ANTIGUO Iratxe. 2 logela, egongela, sukaldia, banagueta. Bertako. 34.500.000 pta

HERROIA 2 logela, sukaldia, egongela, banagueta. Bertako. 34.500.000 pta

MARTUTENE 2 logela, sukaldia, egongela, banagueta. Bertako. Kanpoko. Puzta. 28.900.000 pta

LARAZTE Altua. Buzak. 2 logela, sukaldia, egongela, banagueta. Igogailua. 37.500.000 pta

ALZA 2 logela, egongela, sukaldia, banagueta. Txaralekuarekin. 34.500.000 pta

ALZA 150m². 4 logela, sukaldia, egongela, 2 banagueta. 30m²ko terraza. 48.500.000 pta

PASAI SAN JUAN 2 logela, sukaldia, egongela, banagueta. Bertako. Bista. 23.800.000 pta

ERREKATIA Euzkoaren. 2 logela, sukaldia, egongela, banagueta. Terraza. 27.000.000 pta

USURRI 150m². 3 logela, sukaldia, egongela, banagueta. Txaralekuarekin. Puzta. 43.500.000 pta

LEZO Erdialdean. Berta. 2 eta 3 logelak. Terraza. Garaje. 280.000€ bitartean.

ALOKATZENDO

AMARA 3 logela, sukaldia, egongela, 2 banagueta. Bertako. 400€

GRIO Iratxeleku. 2 logela, sukaldia, egongela, banagueta. 375€

HERROIA 2 logela, sukaldia, egongela, banagueta. Terraza. Iratxeleku. 400€

www.etxebila.net
Felix 62 etxeb. 4 • DONOSTIA

INMOKOSTA
INMOBILIARIA

SALDU

GETARIA. Erdialdean. Zeharo erabat berria. 2 gela, sukaldia, asos, banagueta, txaraleku, iratxeleku. Bista irekia. Kanpoko begira eta eguzkitasun. **204.545 euro (34 milioi)**

ZARAUZ. ZIKURRIA kalea. 2 logela, egongela, sukaldia, banagueta eta iratxeleku. **270.470 euro (46 milioi)**

ZARAUZ. VISTA ALEGRE. 3 gela, sukaldia, banagueta, asos. **211.490 euro (34,5 milioi)**

ZARAUZ. TXARALEKU. 2 gela, asos, iratxeleku, sukaldia, banagueta, txaraleku, txaraleku. Txaralekuarekin. Aitzakia gutxi

ZARAUZ. ABIZTATIALE. 2 gela, asos, sukaldia, iratxeleku, 2 banagueta, iratxeleku, txaraleku. Txaralekuarekin. Aitzakia gutxi

ZARAUZ. LERROIAN. 3 gela, asos, iratxeleku, sukaldia, banagueta, 2 banagueta, iratxeleku. Garaje. Asos, asosko iratxeleku

ORIO. ERAGOINTZA TERESA. 2 gela, asos, sukaldia, banagueta, iratxeleku, txaraleku, txaraleku. Kanpoko begira eta eguzkitasun. Garaje eta txaralekuak

ORIO. Familia bakarreko etxe oso gutxi. 3 solairu. 130m² eta asos. Lantegi eta iratxeleku. Txaralekuarekin. Aitzakia gutxi

AIA. 60m². 2 gela, asos, sukaldia, banagueta, iratxeleku. Bereziki txaraleku. Igogailua. Kanpoko asos. Iratxeleku. **237.500 euro (39,5 milioi)**

ZESTOA. 3 gela, asos, sukaldia, banagueta, iratxeleku. Txaraleku. Igogailua. **198.500 euro**

GARAJE SALMENTA, MENDIAUTA, GARAJE ITXIA, LERU BAT

943-83 55 18
www.inmokosta.com
Orape, 20 • behe • 20800 Zarautz

zaldibia bada zortedunik



Hirusta
iragarkia • hiruzetaren zerbitzuak

GC
GRUPO IBAR

3 logelako etxebizitza terraza eta iratxelekuarekin. 265.000 euroko bista
2 logelako etxebizitza iratxelekuarekin. 300.000 euroko bista
iragarkia orainekoak soilik argitaratuko dira

lazkao HEMEN BIZI NAHI DU?



Toki Eder
ESPIGUA • ERABUNTZA

943 31 66 11
620 111 271
www.grupoeibar.com

3 logelako etxebizitza • 150.000 euroko bista
3 logelako etxebizitza • 175.000 euroko bista
10 40m²ko terraza eta 15m²ko terraza. Bista irekia



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibaraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizalzeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Musika eskolako 23 pianista Andoaingo Piano Jaialdian

Pasa den asteburuan izandako topaketetan piano-jotzaile tolosarrek sari ugari etxeratu zituzten



Tolosako parte-hartzaileak. HITZA

Erredakzioa Tolosa

Pasa den asteburuan VI. Piano Jaialdia izan zen Andoainean eta bertan Tolosako Udal Musika Eskolako 23 pianoko ikaslek hartu zuten parte.

Agenda

INAUTERIAK

- **Lizartza.** Inauterien baitan gaur 14:15ean moztorro festa. Bihar berriz 07:00etan plazan elkartu eta puska biltzea; 12:00etan moztorro, gurdi eta txarangen irteera; 13:30ean kalejira; 18:00etan gurdi eta moztorroren kalejira; eta 23:00etan 3gabe2 taldearen kontzertua Gaztetxean. Etzi berriz, hamaitakak, dantzarien kalejira goizean zehar eta bazkaria. 20:30ean bukatuko dira Inauteriak ijitoa errez.
- **Berastegi.** Inauterien baitan eskolako umeak moztorrotuta aterako dira gaur 14:30ean. Bihar 14:30ean herriko dantzari beraien emanaldia egingo dute moztorrotua.
- **Tolosa.** Inauteriko zezen enbolatuetarako palkoen zozketa gaur 19:00etan Zerkausian. Aurrez izena eman duten interesatuek bertan egon behar dute NANrekin egokituz gero, sarreak une berean erosteko.
- **Anoeta.** Gaur 18:30ean plazan elkartu eta Loatzo musika eskolaren laguntzarekin Kaldereroetako kalejira.
- **Ibarra.** Gaur 18:00etan plazan elkartu eta 18:30ean txaranga-rekin Kaldereroetako kalejira.
- **Irura.** Gaur 18:00etan elkartu eta Loatzoko musikarien laguntzarekin Kaldereroetako kalejira.
- **Tolosa.** Gaur 20:00etan Leidoren Eduardo Mokoroa udal musika eskolako ikasleek Kalderero kontzertua.
- **Zizurkil.** Pedro Mari Otaño

- ikastetxeak kaldereroak ospatuko ditu gaur 15:15etik aurrera kalejira batekin.
- **Tolosa.** Inauterik Jam Sesion afaria Bonberenean gaur, 22:30etik aurrera. Juantxo Zerberio eta Bonbereneako gazteen eskutik izango da jam sessioa Inauterietako kantak joz. Afaria 21:00etan izango da eta ondoren hasiko dira kantak abesten. Sarrerak sarrerak@bonberenea.com helbidean.
- **Tolosa.** Kantu Jira bihar, 12:00etan Tontokaletik abiatuta. Inauterietako kantak abestuko dituzte Bonberenea Txaranga-laguntzarekin. Kantu Jirako arduradunek parte-hartzaileei kaldereroz jantzita joateko eskatu diete.
- **Tolosa.** Aiz Orratz elkartearen moztorro lehiaketa larunbatean izango da. Harizpe jubilatuta elkartean. Lehiaketa parte hartzeko epea gaur bukatuko da. Izena Aiz Orratz elkartean eman beharko da 18:00etatik 20:00etara.
- **Tolosa.** Kaldereroetako bihar-ko gitara: 11:00etan erraldoi eta buruhandiak Plaza Zaharretik, 15:00etan haurren txantxo lehiaketa; 16:00etan haur jaialdia Leidoren; 19:00etan Urdiña Txikik antolatutako kaldereroen konpartsen irteera Plaza Zaharretik; eta 23:30ean Incansables txaranga kalez kale.
- **Tolosa.** Musika Bandak eta Txistulari Bandak Inauterikontzertua eskainiko dute etzi 12:15ean Berdura plazan.
- **Tolosa.** Inauterietako karroza eta konpartsen lehiaketa parte

te hartzeko epea zabalik dago. Lehiaketa parte hartu nahi duenak izena eman dezake bai kultur etxean eta baita helbide honetan www.tolosakouda.org/inauteriak/.

DEIALDIK

- **Tolosa.** Tolosaldea Sahararen elkarteko kideak gaur bilduko dira 11:15ean zezen-plazan Tinduf aldera abiatzeko. Urtero bezala Sahara maratoiko lasterketa ezberdinetan hartuko dute parte Tolosaldeko hainbat herritar eta bide batez, bertan duten Miyic-eko eskolaren proiektuaren eraikuntza jarriko dute martxan.
- **Tolosa.** Gaur Hezkuntza eta Heziketaren inguruko jardunaldietan haur liburutegian 17:30ean David Plaren *Continum-a errespetatzen duten hezkuntza ereduak: eskola eta bizi-porrotta alboratzeko gakoa* hitzaldia emango da bideo emanaldi baten bitartez. Eta ondoren solasaldia izango da.
- **Tolosa.** Aurrez Aurre ekimenaren baitan gaur 17:00etatik 21:00etara tailer paraleloak izango dira Aranburu jauregian. Tailerretan *pantajismoa* landuko dute Itziar Ziga eta Nagore Iturrioren eskutik, *drag kingena* Medeak eskainiko du eta Azucena Veitesek *Hazlo tu misma: grrrl, queer, trans zines* argitalpen feminista izango du hizpide. Festa ere izango da Yogurina, Ocean LeRoy, Furia, Ana Elena Pena eta Placida Ye Ye eta Diana Aller dj-ekin.

Alvaro Martin, Tammily Orostegui, Jon Ander Zabala, Irene Amantegi, Irati Arroyo, Jone Belza, Laida Dominguez, Marta Etxeberria, Iker Garmendia, Alvaro Imizcoz, Oihana Olano, Kerman Sorarrain, June Vazquez, Naiia Vazquez, Nerea Brusau, Ainhoa Garikano, Jon Eusebi Hidalgo, Irene Lopez eta Ioritz Ezkurdia banakako modalitatean aritu ziren eta Jon Ayuso, Lydia Justo, Ainhoa Gauna eta Amaia Ulazia binakakoan. Denen artean, urrezko, zilarrrezko eta brontzezko dominak eskuratu zituzten eta Tolosako Udal Musika Eskolako, «zorionik beroenak» eman nahi dizkie ikasle hauei, bide batez, bide horretatik jarraitzeko ere eskatuz.

Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria kalea, 7. 943 67 09 15.
- **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

BIHAR

- **Tolosa.** Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
- **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

ETZI

- **Tolosa.** Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
- **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

ASTELEHENA

- **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernikako Arbola, 3. 943 65 10 45.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Urte askoan!
Alain Azkue Aguirre. Astelehenean 3 urte. Zorionak eta urte askotarako Alain! Ondo pasa eta muxu bat aitta eta amaren partez.

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

●● **agurrak**